Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

408

Azaroak 1, 2021

Joxan Elosegik 2021eko Euskadi Literatur Saria irabazi du Euskarazko Literatura Itzulpen atalean



2 Irun atzo, Irun gaur
3 Partaidetzazko aurrekontuak
4 Recicla Birziklatu
5 Bidasoa Ospitaleko obra
6 Emakume Idazleen Eguna
7 Joxan Elosegi
8 Kirolak: San Marcial KE
9 Kirolak: Euskadiko Junior Rally Txapelketa
10 Irun Aurrera bonuak
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Iune Bermejo
14 iGazte
15 Agenda

Argazkia: Estudio Gover

Janeth Carreño
Koordinatzailea
667 94 04 05

caser cuidados

INFORMA ZAITEZ!

Etxez etxeko laguntza

EDOZEIN EGOERATAN:
- Menpekotasunean
- Ahalmen urritasunean
- Konbaleszentzia edo gaixotasunean

EDOZEIN DENBORAZ
- Aldi baterakoa
- Iraunkorra

EDONON LAGUNTZEN
- Etxean edo etxetik kanpo
- Ospitalean
- Egoitzan
- Enpresan

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1921eko azaroaren 6an El Bidasoa aldizkarian argitaratutako albisteek orain dela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak erakusten dituzte. Lehen idatziak Ogasun ministroaren eta euskal diputazioen ordezkarien artean orain dela egun batzuk sortutako eztabaida kontatzen du. Ostean, Sicilian dagoen Gabarain soldaduak El Bidasoa aldizkarirako idatzitako gutun polemikoa aipatzen da, idazleak euskaldunak malagarren gainetik goratzen baititu. Jarraian, Ongintza batzordearen azken biltzarrean hartutako erabakiak zerrendatzen dira, elkarteak jasotako diru ekarpenak zertarako erabiliko diren zehazteaz gainera.

Bigarren orrialdea, aldiz, kirol kronikarekin hasten da. Bertan, Real Union taldeak Santanderren lortutako bi garaipenak kontatzen dira, arratsalde horretan jokatzekoa den partiduaren xehetasunak ematen dira eta "Futbolerías" txapelketa hastear dela jakinarazten da. Ostean, "Ya llovió" titulua duen olerkia sinatzen du T. kolaboratzaileak. E. R.k , aldiz, Cambó ministroaren eta Euskal Diputazioen arteko tirabira kontatzen du. Titok Rafael Larumbe doktoreak hiritik alde egin duela jakinarazten die El Bidasoako irakurleei. Ohikoa denez, "De todo un poco" atalean hainbat berri labur biltzen dira, horien artean, Irunen hegazkin eremu bat eraikiko dela dioen zurrumurrua, futbol kontuak eta udal hauteskundeak aipatzen dira.

Azkenaurreko orrialdean, ohiko "Notas Municipales" atalaren aurretik, Afrikara doan Sizilia batailoiaren agurra eta azken udal bilkuran gertatutakoak kontatzen dira. Albiste laburrek osatutako "Noticias" atalaren ostean, aldizkaria publizitate iragarkiz betetako orrialdearekin amaitzen da.

Agrazkiak:

7696: Alzukaitz eremuan kokatutako "La Palmera" erremintafabrikaren kanpoaldea Pelegrin de Uranzu kaletik ikusita, bigarren planoan Buenavistako muinoan izen bereko etxea eta Portu etxea ikus daitezkeelarik.

38923: Jose Larracheren "Droguería Larrache - Sucesor de Arístegui" denda Eliza kaleko 9.ean.

53131: Militarren desfilea Nafarroa etorbidetik.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

2022ko Partaidetzazko Aurrekontuen Prozesuak baditu irabazleak

2022ko partaidetzazko aurrekontuen bitartez 9 proposamen irabazleak hautatu dira. 1,3 milioiko aurrekontuarekin, aukeratutako ekimenak 1.292.000 eurora iristen dira guztira. Iaz egin zen bezala, ez dira aukeratu ezarritako aurrekontuaren batura gainditzen zuten proposamenak. Horrela, bada, 8.000 euroko soberakina geratu da, eta gazte-prozesuan aprobetxatu da soberakin hori, parte hartzeko taldean erabakitako prozesu-metodologiarekin bat etorriz.

Parte hartzeari dagokionez, 1.404 pertsonek parte hartu dute prozesu orokorrean. Ekimenak izan duen bigarren daturik onena izan da Irun Txartela bozkatzeko tresna sartzeak ekarri zuen formatu aldaketa egin ondoren. Zenbatekoak 2020ko partaidetzazko aurrekontuen edizioak lortutako 950 parte-hartzaileen kopurua gainditu du. Hala ere, 2019ko kopuruaren azpian geratu da, orduko prozesuak 1.419 parte-hartzaile izan baitzituen. Aurten, guztira, 5.925 boto jaso dira.

Lehenengo balantzeak uzten dituen gainerako datuen artean, iaz bezala 30 eta 50 urte bitartekoak izan dira prozesuan parte hartu duten gehienak, parte-hartzaile guztien % 50a. Era berean, emakumeen inplikazio handiagoa izan da, iaz bezala, % 54koa.

Informazio eta Herritarren Parte Hartze arlotik Mónica Martínez ordezkariak eskerrak eman dizkie interesatu diren kolektibo eta herritarrei, bozketa-faseraino aktiboki parte hartu dutelako prozesu osoan, bozketekin amaitu arte. Urtero bezala, azterketa zabalago bat egingo da datozen egunetan lortuko diren datuekin, datozen edizioetan kontuan hartu daitezkeen alderdiekin, beti prest ekimen hau indartzeko baliagarriak diren ekarpenak jasotzeko. Prozesu orokorrean hautatutako proposamenak lehen taulan bildu dira.

Gazteentzako aurrekontuak

Gazteentzako prozesuan, 16 eta 30 urte bitarteko 160 gaztek parte hartu dute 2022ko edizioan eta 665 boto bildu dira. Iaz, aldiz, 41 izan ziren. Nabarmentzekoa da parte-hartzearen gorakada, 2020ko aurrekontuekin alderatuta laukoiztu egin baita. Prozesu orokorrean bezala, emakumezkoak izan dira gehienak (% 67). Hautatutako proposamenen zerrendari dagokionez, adierazi behar da prozesu orokorrak utzi duen 8.000 euroko soberakina kontuan hartu dela. Horrela, bada, bigarren taulan zerrendatutako ekarpenak hautatu dira.

BOTOAK	ZENBATEKOA	PROZESU OROKORREKO PROPOSAMENAK
681	170.000 €	Segurtasun-kamera gehiago instalatzea hirian zehar.
645	130.000€	Bidegorrien eraikuntza hobetzea eta hondatuak dauden tramoak aztertzea hobetzeko helburuarekin.
475	150.000€	Hiriko kultura-ikuskizunen kalitatea handitzea eta hobetzea, 150.000 €-ko ekarpenarekin
452	200.000€	Zebra-bideetako espaloiak jaistea, mugikortasuna errazteko.
399	210.000€	Udaltzaingoaren lana errazteko segurtasun-tresnetan aurrekontua handitzea
327	6.000€	Hilero, erdiguneko plaza batean bigarren eskuko azoka bat antolatzea non herritarrek objektuak erosi, saldu edo trukatzeko aukera izan dezaten.
325	400.000€	Oñaurreko haur-parkea handitzea eta estaltzea, urteko edozein garaitan erabili ahal izan dadin eta joko-elementuak gehitzea, hondatutakoak ordezteko.
309	20.000€	Auzoak txandakatuko dituzten kultur jarduera gehiago antolatzea.
189	6.000€	Homofobia eta xenofobiaren aurkako kanpaina:

BOTOAK	ZENBATEKOA	GAZTEEN PROZESUKO PROPOSAMENAK
110	90.000€	Biztanle gazteei etxebizitza alokatzeko zuzeneko laguntzen lerro bat irekitzea.
72	10.000€	Musika jaialdi bat antolatzea eta urte osoan kontzertuak eskaintzea.
68	10.000€	"Txaranga Eguna" ospatzea, Irungo hiru txarangen eta kanpotik datozen beste batzuen eskutik.
63	36.000€	Abeslarien eta taldeen musika kontzertu gehiago programatzea gazteentzat.
59	30.000€	GAZTE ZERBITZUA. -Aisialdi alternatiboa asteburuetan
36	1.200€	Finantza-hezkuntzako doako ikastaro bat antolatzea.
34	12.000€	Bizikletak erreparatzeko estazioak jartzea leku estrategikoetan bizikleta erabiltzeko.
30	4.500 €	Junkaleko plazatxoan aire zabaleko zinemaren programazioa zabaltzea, gazteentzako filmeekin.
23	3.500€	Irunen kontzertu eta musika koraleko jarduera gehiago eskaintzea, batez ere gazteentzat, eta Gabonetan abesbatzak sustatzea.
Soberan gelditu dena ez galtzeko	5.000€	ESKOLA AGENDA 2030 - Herriko parkeetan zuhaitzen identifikazio txartelak jarri jendearen ezagutza sustatzeko

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Murrizketan, berrerabilpenean eta birziklapenean datza ingurunea babesteko jarrera eredugarria

Recicla Birziklatu elkarteko kideek hondakinak murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea sustatzeko nahiari eusten diote. Elkartearen jarduerak natur ingurune hurbilean zabor bilketak antolatzeaz gain, bestelako proiektuak burutzeko helburua du. Laida Rodriguezek eta Rober Sernak naturaren zaintzan laguntzen duten ekintza txikiak gogoratu dituzte.

Urri amaieran zabor-bilketa bat egiteko asmoa zenuten, baina azkenean bertan behera gelditu da?
Laida: Hori da. Azkenean ezingo dugu antolatu, beraz, hurrengo bilketak pentsatzen eta antolatzen hasi gara jada.

Ez da lan erraza zabor bilketa bat antolatzea?
Laida: Ez, izan ere, antolakuntza lan handia eskatzen du. Oraingoan ez ginen gu antolaketan inplikatutako bakarrak eta, azkenean, ezinezkoa izan da ekintza aurrera eramatea.

Zein da zabor bilketetan gehien errepikatzen den hondakin mota?
Rober: Bilketa eremuaren arabera hondakin mota desberdinak topatzen ditugu. Ibaian latak eta plastikozko botilak edo poltsa asko aurkitzen ditugu. Esaterako, batez ere pandemiaren ostean, gazteek Bidasoa ibaiaren paduretan elkartzeko ohitura hartu dute eta jarrera desegokiek ingurunea nola kaltetzen duten ikusi ahal izan dugu.

Oraintxe Irunen zainketa berezia behar duen espaziorik atzeman duzue?
Laida: Zorionez eta zoritxarrez interneteko Recicla Birziklatu kontura hondakinek kutsatutako eremu naturalen argazki asko iristen zaizkigu. Gazteria biltzen den tokietan zaborra modu desegokian kudeatzen dela konturatu gara. Horren adibide garbia da Palmera Monteroko bidegorrietan gertatzen dena.

Rober: Bestetik, askok mendiko askatasuna nahi dutena egiteko aprobetxatzen dute eta mendira igotako gauzak bertan uzten dituzte, inolako ardurarik gabe. Ohitura hori aldatzeko lan asko dago egiteko.

Konfinamenduak naturaren zainketaz kontzientziatu ordez, kontrakoa eragin du?
Rober: Konfinamenduan sare sozialetan partekatutako irudiek gogoeta eragin eta gizartearen jarrera aldatzeko nahia sustatu zutela zirudien. Kalera itzuli garenen, ordea, lehengo egoerara itzuli gara.

Laida: Arazoak hor jarraitzen du. Pandemiaren unerik latzenean beste gauza batzuei garrantzia ematen hasi ginen eta orain, aldiz, egoera berberean gaude. Egia esan, oraindik okerrago gaude, lehen baino hondakin gehiago dauzkagulako.

Musukoaren erabilerak ere naturan kalteak eragin ditu?
Rober: Bai, asko nabaritu dugu eta ez maskarekin bakarrik. Atzo Hondarribiko hondartzatik pasiatzen nenbilela hainbat eskularru aurkitu nituen hondartzan botata. Musukoak askotan poltsikoetan gordetzen ditugu eta, konturatu gabe, erori egiten zaizkigu. Uste dut lurrean ikusten ditugun maskara gehienak ez direla nahita botatzen. Hala ere, egia da pandemiaz geroztik lurrean maskarak, eskularruak eta eskuak garbitzeko gelen botilatxo txiki gehiago ikusten ditugula.

Pozik egongo zarete udalak zuek proposatutako "Itsasoa hemen hasten da" egitasmoa martxan jarri ostean?
Laida: Bai, oso harro eta pozik gaude. Udalera proposamena eramatea erabaki genuen eta harrera ona egin ziguten. Mundu mailan gauzatzen ari den proiektu honen barnean sartu nahi genuen. Izan ere, gure lurrak Bidasoa ibaiak zeharkatzen ditu eta eskualdean egitasmoa martxan jartzea interesgarria izan zitekeela iruditu zitzaigun.

Beraz, instituzioen inplikazioa beharrezkoa da ingurumenaren zainketa sustatzeko?
Laida: Bai, gurea bezalako elkarteentzat oso garrantzitsua da Irungo Udala bezalako instituzioen laguntza jasotzea. Hala ere, lana ez dugu erakunde edo elkarteek bakarrik egin behar. Guztion ardura da natura zaintzea.

Talde lanaz gainera, Recicla Birziklatuk pertsona bakoitzaren jokabideetan eragin nahi du?
Rober: Azken batean, helburua zera da, elkartearen jardueraren bitartez ingurumenaren zainketa sustatzea. Bakoitza bere ekintzen erantzulea dela argi izan behar dugu. Oso ondo dago etxean birziklatzea, bizikletak garraiobide bezala erabiltzea, baina oraindik urrats handiagoak egin behar ditugu.

Sare sozialetan "El Rincón de Laida" bezalako egitasmoekin hondakinen murrizketa sustatu nahi duzue?
Laida: Asmoa da jendeari ezagutzen ez dituen kontsumo ohitura jasangarriagoak erakustea. Erosi ordez, etxean ere gauza asko egin ditzakegu. Birziklatzea garrantzitsua da, baina garrantzitsuagoa da gutxiago kontsumitzea eta gauzak berrerabiltzen saiatzea. Hori guztia gure etxeetan hasten da, gure ekintzen bitartez.

Haurrekin gaia lantzeko ere hainbat ekintza antolatu dituzue?
Rober: Etorkizuna beraien eskuetan dago. Horregatik, eskoletara joan eta gure lana aurkezten saiatzen gara, erraza ez den arren. Dena den, zenbait eskoletan sartzeko aukera izan dugu.

Sare sozialak gizartean aldaketa eragiteko tresna gisa baliatu dituzue?
Rober: Sare sozialak doako erremintak direnez, guretzako oso lantresna interesgarriak dira, jende gehienak eta, bereziki, gazteek sare sozialak erabiltzen dituztelako. Gure Instagram kontuan gure lana zabaltzeko ahalegin berezia egiten dugu.

Proiektu berriak bururatu zaizkizue jada?
Laida: Garbiketak antolatzen jarraitzeko asmo dugu, baina hori aurrerago izan beharko da. Gainera, buruan beste hainbat ideia dauzkagu, baina oraindik ezin dugu ezer kontatu, datorren urtean ikusiko dituzue.

Bidasoa Ospitaleko bloke kirurgikoa berritzeko obrak hautsak harrotu ditu langile eta erabiltzaileen artean

Bidasoa Ospitaleko ebakuntza-gelak, Suspertze Unitatea eta Zainketa Kritikoen Unitatea berritzeko proiektuak langile eta herritarren haserrea piztu du. Izan ere, ustez obrak 18 hilabeteko iraupena izango du eta, bitarte horretan, ebakuntza-gela guztiak itxi, larrialdietako barne, eta Bidasoa eta Bortzirietako biztanleak Donostiara bidali nahi dira. Mariaje Alfonso Bidasoa Ospitaleko kirofanoko erizaina da eta, lankideen izenean, ebakuntza-gelen itxierak pazienteen arreta nola kaltetuko duen azaldu du.

Noiz eta nola izan zenuten ospitaleko bloke kirurgikoa eraberritzeko proiektuaren berri?
Gutxienez duela bi urtetik dakigu. Bloke kirurgikoa zaharkituta dago eta sareko guztiak berritzen joan dira. Erreforma egiteko moduari dagokionez, oraindik ez dakigu zehazki nola egingo den, oraindik ez baitigute plan finko baten berri eman, ezta nola antolatuko den eta ondorioak zeintzuk izango diren ere. Bakarrik dakigu ebakuntza mota guztiak Donostiara eramatea dela asmoa, eskualdea ebakuntza-gelarik gabe uztea, larrialdietakoa barne. Horrez gain Onkologikora joango garela suposatzen da. Hori da dakigun bakarra, gainerako guztia espekulazioak dira. Ez dakigu zer gertatuko den pazienteekin edo ospitaleratze-unitateekin. Informazioa zuzendaritzak noizean behin askatzen dituen datu txikietatik lortzen dugu.

Informazio faltak eta usteko plangintzak langile eta erabiltzaileak haserretu ditu?
Nik, herritar naizen aldetik, ez dut ulertzen sareko ebakuntza-gela guztiak berritu izana eta sareko inor ebakuntza zerbitzurik gabe utzi izana, baina, aldiz, hori gurekin egin nahi izatea. Donostiatik gertu gaudela esaten digute, baina hori horrela da autoa eta osasun ona badituzu eta haraino mugitzeko aukera baduzu. Egoera horretan ez dagoen pertsona batentzat, Onkologikora iristea ordubete baino gehiagoko bidaia izan daiteke. Jendeak bere kabuz Donostiara iristeko modua aurkitu beharko du. Langileok ez dugu arazorik lanera joateko, aparkalekuaren arazoa Donostiako eremuko langile guztiek bezala jasango dugu. Herritarrok izango dugu benetan arazo larria; izan ere, joan-etorriez gain, ebakuntza-gela gutxiago izango ditugu. Orain, oso larri bazaude ordu laurden batean ebakuntza-gelan egon zaitezke, eta eskainitako irtenbide berriak ez du horretarako aukerarik ematen.

> **"Ez dakigu zer gertatuko den pazienteekin edo ospitaleratze-unitateekin"**

> **"Uste dut udalen eta herritarren mobilizazioaren bidez zerbait lor daitekeela"**

Mariaje Alfonso, Bidasoa Ospitaleko kirofanoko erizaina

Ez zarete obra egitearen aurka agertu, bazik egiteko moduaren aurka?
Guk badakigu beharrezkoa dela ebakuntza-gelak eraberritzea, zahartu egin baitira. Ospitale honek 32 urte ditu eta berritzeko ordua da. Ez gaude ados horiek berritzeko moduarekin. Bidasoko biztanleak zigortzeko modu bat iruditzen zaigu. Politikariek, ohi bezala, hitz politekin hitz egiten digute, errealitatea nolakoa den azaldu gabe.

Nola eragingo dio obrak pazienteek eta senideek jasoko duten zerbitzuari?
Donostian ebakuntza egin behar duen senideren bat baduzu, norbaitek eraman beharko du. Hemen, kirurgia txikia bada, atean utzi eta lanera joan zaitezke. Donostian, aldiz, langileok dugun aparkaleku-arazo bera aurkituko duzu, eta, horren ondorioz, denbora tarte handiarekin joan beharko duzu. Eskualdeko jendeak ordu asko galduko ditu eta hori ez da kontuan hartzen.

Jarduera lekuz aldatzeak ez al du Donostiako ospitaleetako zerbitzua kolapsatuko?
Hori argitu beharreko gaia da. Onkologikoaren jarduera erabat deuseztatuta dago urtarriletik. Ez dute gu jasotzeko ahalegin berezirik egingo, nahiz eta egingo dutela kontatzen diguten. Hori ez da horrela. Onkologikoa orain Osakidetzak kudeatzen du eta aurretik zeukan jarduera guztia eten egin denez, pixkanaka desegiten ari dira. Ospitale horrekin benetan zer egin nahi duten ere ez dakigu, baina desmuntatzen ari badira, ez da gu hartzeagatik.

Eztabaida piztu ondoren, jaso al duzue zuzendarien erantzunik edo argibiderik?
Nik ez, ni erizaina naizelako, baina buruzagitzak bai. Nagusiek urtebete baino gehiago daramate bilerak egiten gaiari heltzeko, baina gerentziak ez du iritzia aldatu. Hasieratik esan zuten hemendik gindoazela eta ebakuntza-gela guztiak ixten zirela. Zerbitzu-buruek duela astebete izan zuten azken bilera, eta langileak ordezkatzen dituzten nagusi guztiak erabaki horren aurka agertu ziren. Zuzendaritzari jakinarazi zaio, baina badirudi ez daudela iradokizunak jasotzeko prest.

Eskualdeko biztanleek behintzat gertatuko denaren informazioa zuei esker jasotzea eskertu dute?
Bai. Azken egun hauetan asko hitz egin da ospitalean datozen hilabeteetan gertatuko denaz, baina gutxi dira gaiari sakon heldu eta orain arte dakigun apurraren berri ematera ausartzen direnak. Langileok mobilizatzen ari gara herritarrek egoera zein den jakin dezaten, eta, horretarako, hedabideengana jo dugu, besteak beste. Gertatutako dena ezagutu ostean, herritarren mugimendu bat hasi da, jendea sinadurak biltzen hasi da eta hainbat mobilizazio antolatzen ari dira. Jendea kezkatuta dago. Denok dakigu obrak ez duela 18 hilabete bakarrik iraungo.

Zuen ustez, zein izango litzateke irtenbide egokia?
Hasieratik proposatu dugu konponbidea egungo ospitalearen alboan solairu bateko eraikin berri bat eraikitzea dela, gaur egun ospitalearen atzeko aparkalekua dagoen lekuan. Aparkalekua lurperatuz gero, egungo aparkaleku arazoa areagotu gabe, ebakuntza-gela berriak eraiki daitezke. Behin obra amaituta, Donostiako ama-ospitalearekin edo Txagorritxuko ebakuntza-gelekin egin den bezala, eraikin berri hori ospitalearekin lotu ahal izango litzateke pasabide baten bidez. Hala, etorkizunean, horri esker, gaur egun ospitalean berrikuntza behar duten zerbitzuak handitu eta hobetu ahal izango lirateke, hala nola errehabilitazio-gimnasioa edo etxeko ospitalizazio-zerbitzua. Eraikin berrira zerbitzu pare bat eraman ahal izateak Bidasoko zerbitzua hobetzea ahalbidetuko luke. Etorkizunean ospitalea handitu beharko da, etorkizunean Errenterian, Oiartzunen eta Lezon bizi direnak artatu nahi baitira. Urte gutxi barru izango dugun arazo bat da, eta dagoeneko konpontzen has gaitezke.

Mobilizazioen bitartez zuzendaritzaren iritzia aldatzea posible izango da?
Gerentziak, langileok bakarrik kexatzen bagara, ez digu jaramonik egingo, baina uste dugu zerbait lortu dezakegula herritarrak gure alde badaude. Uste dut udalen eta herritarren mobilizazioaren bidez zerbait lor daitekeela. Osakidetzak kolokan ikusi behar du erabakia, diru asko inbertituko baita. Guztion dirua erabiliko da obra egiteko, eta ez dugu nahi gure dirua erabiltzea orain lardaskeria bat egin eta hemendik gutxira berriro aurretik egindakoa konpontzeko. Horregatik, uste dut asko dugula esateko.

Ekintza ugari antolatu dira CBA Liburutegian Emakume Idazleen Eguna ospatzeko

Irungo Udaleko Kultura Arloak hainbat ekintza antolatu ditu urriaren 15etik 22ra bitarte Irungo CBA Liburutegian Emakume Idazleen Eguna ospatzeko. Era horretan, emakume idazleek historian barrena egindako lana eta emakumeek utzitako ondarea aldarrikatu dira. Ekitaldiak Espainiako Liburutegi Nazionalak Emakumezko Zuzendari, Exekutibo, Profesional eta Enpresarien Espainiako Federazioarekin eta Clásicas y Modernas elkarteek elkarlanean antolatutako jardunaldien barnean antolatu dira.

Aurreko edizioetan egin izan den moduan, Santa Teresa egunetik gertuen dagoen astelehena aukeratu da Emakume Idazleen Egunaren inguruko ekintzak antolatzeko. Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariak azaldu duenez, "berriro ere horrelako jarduerak egiten hastea da gure eguneroko bizitza eta, tartean, hiriko kultur zentroak normaltasunera itzultzen ari diren adierazgarririk garbiena". Aurtengoa Emakumezko Idazleen Egunaren seigarren edizioa izan da. Kultura ordezkariak adierazi duenez, "CBA gure agendako hitzordu finkoa bihurtu nahi dugu, literaturara emakumezko idazleen eta, tartean, bertako protagonisten eskutik gerturatzeko".

Urriaren 15ean hasi eta 22an amaitu ziren Emakume Idazleen Egunaren inguruan antolatutako ekitaldiak. Antolatutako ekitaldien artean emakume idazleen topaketak, mahai inguruak eta hitzaldiak egin dira. Era berean, emakumeek idatzitako obren pasarteen irakurraldi publikoak egin dira, Esther Barandiaranek pianoaz akonpainatuta. Jarduerak doakoak izan dira eta edukierak bete arte nahi duen orok parte hartu ahal izan du, gonbidapenik behar izan gabe.

Anna Caballé

Anna Caballék urriaren 15ean hasiera eman zion emakume idazleen jardunean zentratutako jardunaldien asteari. Clásicas y Modernas elkarteko presidenteak eskainitako konferentziaren hasieran onartu zuen, "Ilusio handia egiten dit zuekin partekatzeak emakume idazleen egunari eskainiko dizkiozuen jardunaldien hasiera". Emakume Idazleen Eguna antolatzeko eguna hasieratik harrera oso ona izan duen egitasmoa izan dela azaldu du Caballék. "Proiektuak estatuan izandako jarraipenaz gainera, 400 liburutegi Latinoamerikar batu dira ekimenera". Anna Caballéren esanetan, egitasmoa idazketaren munduan murgildu ziren emakumeak omentzeko modua da.

Esther Barandiaran

Urriaren 18a, emakumeek idatzitako obren pasarteen irakurraldi publikoak egingo dira, pianoan Esther Barandiaranen konpainian. Iñaki Ceberio CBA liburutegiko zuzendariak azaldu zuen, beste urteetan bezala, egun horretan eta ordu berberean Madrilgo Liburutegi Nazionalean eskaini zen irakurraldi bera egin zela.

María José Noain

Urriaren 20an María José Noain antropologo eta arkeologoak "Livia Drusila, una biografía novelada" mahai ingurua zuzendu zuen. María José Atienzaren aurkezpenaren ostean, María José Noainek onartu zuen oraindik idazle hitza bere jardunetik urrutiegi ikusten duela, baina ilusio handiz jaso zuela Emakume Idazleen Egunaren inguruan CBA liburutegian antolatutako ekintzan parte hartzeko gonbidapena. Mahai-inguruaren hasieran idazleen paperaz ausnartu ostean, liburuaren sormen prozesua eta pertsonaiaz mintzatu zen. María José Noainen hitzetan, "badakit pertsonaia interesgarria izan dakizuekeela, baina idazketa jardunaldi batzuetara etorri zarete, eta hori da interesatzen zaizuena".

Marta Salís

Urriaren 21ean Marta Salísen txanda izan zen. Hitzaldiaren hasieran Mertxe Tranchek azaldu zuenez, hainbat saiakeren ostean, VI. Emakume Idazleen Egunak Marta Salís idazlea CBA Liburutegira ekartzeko aukera eman du. Izan ere, Martak lotura estua du Irunekin, Policarpo Balzolaren ondorengoa da eta baita Luis Salís Irungo alkate errepublikarraren biloba ere, eta CBAn bere amonaren, Amalia Balzolaren, izena daraman gela bat dago. Marta Salísek bere hitzaldian Charlotte Brontërek idatzitako azken liburuaz luze hitz egin zuen, "Lucy Snow" izeneko liburuaz, alegia.

Virginia Gasull

Virginia Gasull idazle irundarrak eman zion amaiera Emakume Idazleen inguruko jardunaldiari "Nicole Manguin, rescatando una vida del olvido de la historia" hitzaldiarekin. Idazketa prozesuaz hitz egin ordez, Virginia Gasullek bere azken liburua idazteko ikerketa prozeduran sakondu zuen hitzaldian zehar. "Uste dut ikerketak liburuarekin lotutako bitxikeriak ulertzen lagun dezakeela", adierazi zuen Gasullek. Izan ere, idazle irundarraren iritziz, ikerketa oso baliagarria izan daiteke irakurlearen esperientzia osatzeko.

Aurretiko erreserbarik ez

CBAk jakinarazi duenez, urriaren erdialdetik aurrera, ez da beharrezkoa izango tokia aurrez erreserbatzea ikasketa gela erabiltzeko, eta okupazioa ez da mugatuko txandaka. Ildo beretik, Internet zerbitzua pandemia aurreko dinamikara itzuliko da; alegia, ez da beharrezkoa izango erreserbarik egitea ez hitzordua hartzea.

Joxan Elosegi, 2021eko Euskadi Literatur Saria Euskarazko Literatura Itzulpenean:

"Askotan liburuak irakurtzen ditugu nork itzuli dituen jakin gabe"

Argazkia: Estudio Gover

Joxan Elosegik Euskadiko Literatur Saria jaso du Irene Solà kataluniarraren "Nik kantatu eta dantza egiten du mendiak" eleberriaren itzulpenarengatik. Itzulpengintzaz harago, irundarrak euskararen irakaskuntza, denbora-pasen sorrera eta euskara bultzatzeko hainbat proiektutan murgildu da bere bizitzan zehar. Zehazki, Aitor Errazkinekin batera, 2020ko Jose Antonio Loidi bekaren ikerketa gauzatzen ari da "Bertsoak eta bertsolariak Irunen XIX. mendean" proiektua aurkezteko. Joxan Elosegik bere bizitzan zehar landutako arlo guztiez hitz egin du.

Saritutako liburuaren lanaren itzulpenarengatik saririk jasotzea espero zenuen?

Beti eskergarria da sari bat jasotzea, errekonozimendu bat baita. Beraz, alde horretatik oso pozik nago.

Zertan bereizten dira itzulpen arrunt bat eta saria merezi duen lan bat?

Nik ere, egia esan, ez dakit. Inoiz ez naiz izan epaimahaiko partaide eta ez dakit zer aztertzen duten. Egia da liburu berezi eta bitxia dela, literaturako liburu guztiak bezala. Gu lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen gara. Ez dakit zergatik bereziki hau aukeratu duten eta ez beste bat.

Itzultzailearen lana oharkabean pasatzen da?

Neurri handi batean hala behar duela uste dut. Zuk liburu bat eskutan hartzen duzunean, liburu bera eta bere sortzailea hartzen dituzu kontuan. Egiazko sortzailea idazlea da. Askotan liburuak irakurtzen ditugu nork itzuli dituen jakin gabe. Hala ere, uste dut orokorrean itzultzaileei gustatuko litzaigukeela gure lanaz zabalago hitz egin dadila. Gure lana nolakoa den ezagutzeko, lanean nolako erronkak izaten ditugun kontatu beharko litzateke. Sarritan behar hori sentitzen dugu eta, besteetan, aldiz, ez. Itzulpen mota asko dago, orain, adibidez, itzulpen literarioaz hitz egiten ari gara. Gure oinarrian beti testua dago, testuak itzultzen ditugu eta itzultzaileak testuaren bertsio berri bat sortzen du. Zintzotasunez jokatzen badugu, jatorrizko testuaren bertsio egokia izan behar du. Hori da gure lana. Gu irakurleak gara eta, aldi berean, gure hizkuntza ulertzen duen jendeari guk irakurritako testua eskaintzen diogu, haiek nahi duten hizkuntzan. Kasu honetan, euskaraz.

Beste hizkuntzekin alderatuta, euskarazko itzulpen lanak egitea konplikatuagoa da?

Teorian ez dago alde handirik. Praktikan, behar bada, euskarazko itzulpengintzaren tradizioa ez da horren zabala eta beste berezitasun batzuk izango ditu. Azkenaldian itzulpen automatikoan aurrerapauso handiak eman dira eta baita euskararen kasuan ere. Itzulpengintzaren tradizioa murritzagoa izanda, euskara oraindik ere proiektuan dagoen hizkuntza bat da, beraz, baditu bere berezitasunak.

Itzulpenek euskararen biziraupenean laguntzen dute?

Bai, hizkuntza bultzatzeko bide bat dira, baina, batez ere, beste hizkuntzetan egiten diren gauzak euskaraz, gure hizkuntzan, emateko modua dira. Normaltzat hartu behar dugu beste hizkuntzetan egiten diren produkzioak guk euskaraz jasotzea. Gainera, ez dut uste gauza bera denik erdaraz edo euskaraz irakurtzea. Hizkuntza bakoitzak bere ezaugarriak dauzka eta euskaldunok euskaraz testuak beste modu batera jasotzen ditugula uste dut, naturalago behar bada.

Itzulpenez gainera, 2020ko Jose Antonio Loidi bekaren ikerketan murgilduta zaude. Zergatik erabaki zenuten XIX. mendeko bertsolaritza ikertzea?

Proiektu bat da eta oraindik ez dugu bukatu. XIX. mendean bertsoak Irunen eta inguruko herrietan nolako ibilbidea egin zuen jakin nahi dugu. Inguruko herriak diogunean Hondarribia eta bestaldeko eremuaz ari gara, ez besterik. Bertso bilduma bat eskainiko dugu eta hainbat bertsolari aipatuko ditugu. Ziur horietako asko ezezagunak izango direla. Bertsoa garai horretan eguneroko kontua zela ikusiko dugu, bertsoa euskaldunak berarekin daraman zerbait baita. Batzuk bertso emaileak eta bertso jartzaileak dira eta gehienak kantu horien hartzaileak dira. Oraindik lanean ari gara eta lana entregatu aurretik esan dezakegu ziurrenik jendeak emaitza harriduraz jasoko duela. Izan ere, espero ez duen materialarekin egingo baitu topo.

Zuk idatzitako "Euskaraz, Irunen barrena" liburuak Irunero aldizkariarekin harreman estua du. Zein da liburu horren berezitasuna?

Interesgarria da. Bilduma horretan argitaratzen dira garai batean Irungo La Sallen ibili zen anaiak 1959. urtearen bueltan euskaraz jasotako kontuak. Era askotako testuak biltzen dira bertan, "El Bidasoa" aldizkarian argitaratu zirenak. Besterik gabe, horiek bildu eta liburu batean eman genituen. Bestetik, duela zenbait urte Lopetegi bertsolariaren liburua argitaratu nuen. "Joxemari Lopetegi errepublikanoen bertsolaria" liburuak nolabaiteko lotura du bilduma honekin. Joxemari 1875ean sortu baitzen eta, XIX. mendean jaio arren, XX. mendeko bertsolaritzat hartzen dugu.

Euskararekin lotutako hainbat arlo landu ostean, oraindik egiteke dagoen proiekturen bat duzu buruan?

Beti ere asmoren bat baduzu. Ahal izanez gero itzulpen lanetan segituko dudala uste dut. Beste zertan? Ba ez dakit. Dakizuen bezala prentsan eta hainbat aldizkaritan kolaborazioak egin ditut. Nire bizitza Irungo AEKn euskarazko klaseak ematea eta itzultzea izan da. Bestetik, hitz-gurutzatuen eta denbora-pasen sortzailea naiz aspaldidanik. Garai batean arlo hori asko landu nuen eta Luma izeneko aldizkaria atera genuen. Ez dakit berriro horretan sartuko naizen, behar bada bai.

San Marcial klubak futbolaz harago doan proiektua du eskuartean

San Marcial futbol klubak bere 4. denboraldiari hasiera eman berri dio. Pandemiak eragindako etenaldia gainditu ostean, klubeko kideak zelaira indarberrituta itzuli dira. Zehazki, urriaren 24an 2021-2022 denboraldiko taldeen aurkezpen ekitaldia egin zuten. Jorge Vertiz San Marcial klubeko presidenteak, kirolaren praktika ohikoaz gainera, futbola urrutiago eramateko proiektua garatu nahi dutela azaldu du.

2018an klub gisa lehen urratsak egin zenituzten, eta gaur egun kluba erabat sendotuta dago?
Bai, hala da. Orduz geroztik, 8 eta 18 urte bitarteko neska-mutilekin ari gara lanean. Denboraldi honetan guztira 260 jokalari ditugu, horietatik 120 eskolan eta 140 futbol federatuan. Aurtengo berrikuntza da klubean eskualdeko futbola izango dugun lehen urtea izango dela. Horren beharra genuen gazteei irteera emateko. Pandemiaren egoera egonkortu egin dela dirudien honetan, lehiaketaren erritmoa berreskuratzen saiatzen ari gara.

Oraindik denboraldi-aurrean zaudete edo jada lehen partiduak jokatu dituzue?
Lehiatzen hasi zen lehen taldea ohorezko kadetea izan zen, denboraldia irailaren hasieran hasi zuena. Gero, kadeteak, gazteak eta erregionalak gehitu dira. Haurrak urriaren hasieran hasi ziren, beraz, dagoeneko denak martxan daude. Izan ere, futbol eskola lanean ari da urriaren hasieratik.

Zeintzuk dira denboraldi hasierak dakartzan nobedadeak?
Eskolako haurrak formatzen jarraitzeaz gain, gure ohorezko kadetea mantendu nahi dugu. Erregionala kategoriara egokitzen joatea gustatuko litzaiguke, eta klubean ditugun neska-mutil guztiak zaindu nahi ditugu. Aldi berean, futbola haratago eramateko proiektu bat dugu. Familiak eta entrenatzaileak klubaren erdigunean egotea nahi dugu, eta gure asmoa da tailerrak, hitzaldiak eta bestelako jarduerak antolatzea. Aurten "San Martzial Auzoetan" izeneko ekimena jarri nahi dugu martxan. Futbol 3ko zelaia izango dugu, eta asmoa da haur txikientzako zein helduentzako ekintzak antolatzea.

Jokalariak zenbat kategoria eta taldetan dauzkazue antolatuak?
Aurten eskolan hasi dira 2013an jaiotako haurrak, eta hogeita hamar bat jokalari ditugu. 2011koak bigarren urteko benjaminak dira, 28 jokalari inguru. Ondoren, lehen edo bigarren urteko kimuak dauzkagu eta haiekin amaitzen da eskola. Ondoren, haur-kategoriako txikiak datoz, 2009an jaioak, eta lehen haur-kategoriakoak. Kadeteen artean, lehena (2007) eta ohorezko kadetea (2006). Gazteen artean ere bi azpitalde daude: gazteak eta bigarren eta hirugarren urtekoak. Azkenik, eskualdeko taldearen berrikuntza dugu, eta horri esker, senior futbolaren proiektua hasi da klubarentzat.

Pandemiaren egonkortzeak aurten txikiei jolasteko aukera emango diela dirudi?
Bai, izan ere, aurreko urtean futbol eskolako eta haur-kategoriako jokalariek ez zuten partidu bat bera ere jokatzeko aukerarik izan. Entrenatzen hasi ziren, baina hainbat etenaldi izan zituzten. Aurten denboraldi hasieratik jokalari txikiak zelaian irribarretsu ikusteak asko pozten gaitu.

Txapelketei dagokienez, zeintzuk dira zuentzako data garrantzitsuenak?
Batetik, lehiaketa erregularra dugu, non emaitzak baino gehiago, taldeak lehiatzea, itxura ona ematea eta taldean lan egiten ikastea bilatzen dugu. Abenduan eta ekainean futbol eskolako txapelketetan parte hartu ohi dugu. Haur-umeekin Euskal Herritik kanpoko kongresuren batean izan gara. Datorren urteari begira, futbol eskolako Lehen San Marcial Txapelketa dugu. Bi urte daramatzagu hori gauzatu nahian, eta gogo handia dugu hori egiteko. Asmoa Aste Santuan edo geroago egitea da.

Udaran ez duzue ia etenik izan, Aselagun programa martxan jarri baituzue?
Hori da. Udan gure jarduerarekin jarraitu dugu Irungo Azken Portu kiroldegian, La Sallen eta klubaren instalazioetan. Desberdina izan da, ez baikara futbolean bakarrik zentratu. Kirol asko egin dituzte, txangoak antolatu ditugu eta jarduerak egin ditugu Irungo erdialdean herriko merkataritzarekin. Astean 80-90 parte-hartzaile inguru izan ditugu eta guztira 4 astez lan egin dugu. Etenik gabe, denboraldi-aurrearekin hasi gara ia, eta horrela jarraituko dugu ekainera arte.

Hiri-mailan, zer garrantzi ematen diozue beste futbol-klub batzuekin lortu duzuen akordioari?
Hiriko beste 5 futbol klubekin lortutako akordioa seinale ona dela iruditzen zaigu. Gainerako elkarteekin harreman estuak izatearen alde gaude, bakoitza bere aldetik borrokatzera ohituta gaudelako, askotan behar berdinak ditugula kontuan hartu gabe. Uste dut denoi ondo etorriko zaigula behar denean laguntza emateko eta elkarlanean aritu ahal izateko. Onuradun nagusiak neska-mutikoak izango dira.

Hainbeste aukeren artean, zergatik aukeratzen du jendeak zuen klubean izena ematea?
Gure klubaren abantaila da klub gaztea garela, baina urte luzez futbolaren inguruan lan egin duen jendea dugula bertan. Gauza asko egiten ditugu neska-mutilak txikitatik gustura egon daitezen, eta hori funtsezkoa iruditzen zaigu. Gainera, zerbait gehiago eskaini nahi dugu eta jarduera osagarri asko antolatzea gustatzen zaigu. Futbol egokituko proiektu bat ere abian dugu, eta laster horrelako jarduera bat berriro egiteko asmoa dugu. Klubarengatik eta klubarentzat lan egiten dugu, eta badirudi jendeak hala ulertzen duela.

Oraindik klubak hazten jarraitzeko aukerak dauzka?
Orain gogoeta-une batean gaude. Hiru urte daramatzagu, hau gure laugarren denboraldia da eta urte amaieran zuzendaritza batzordearen aldaketa tokatzen da. Argi dago hasierako beharrak eta oraingoak guztiz desberdinak direla. Orain arte gorantz igo gara garagardoa bezala. Orain kluba egonkortzeko unea iritsi da eta oinarriak ondo finkatu behar ditugu. Nahiz eta 3 urte daramatzagun, pandemia tartean dela, urte bakar batez lehiatu gara. Beraz, orain ondo antolatu behar gara eta ideiak ondo finkatu behar ditugu, futbola praktikatzeko gogoa duten neska-mutilek etorkizunean klubera batzeko aukera izan dezaten.

all4móvil
LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN
PREZIOAK KONPARATUKO DITUGU ZURE ORDEZ!
www.all4movil.com
Puiana kaleko 30. zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com

Irundik Euskadiko Junior Rally Txapelketaren gorenera

Borja de la Linde pilotua, Unai Arretxe kopilotuaren laguntzaz, Euskadiko Rally Txapelketako junior kategorian nagusitu da. Irungo bi gazte hauek elkarrekin lehiatu diren lehen urtea izan da, Citroën Saxo VTS kotxea bidelagun izan dutelarik. Matxurak eta ezustekoak tarteko, azken lasterketaren amaieraraino eusteak euskal txapelketan garaile izateko aukera eman die. Elkarrekin lehiaketako lehen urtean arrakastaren zaporea dastatu ondoren jada hurrengo denboraldian pentsatzen hasiak dira.

Rallyetan lehiatzen zareten lehen urtea izan da eta jada zuen kategoriako lehen postua lortu duzue. Nola egin duzue?
Borja: Egia esan, zaila izan da, baina pixkanaka gure esku zegoen guztia eginez lortu dugu. Apurka-apurka kotxeari neurria hartu diogu. Kotxea prest izateko lan egin dugu, notak hartzera joan gara eta zorte apur bat izan arren, etengabe gauzak egiten egon gara.

Unai: Bai, elkarrekin lehiatu garen lehen urtea izan da. Borjarentzat lehen urtea izan da eta ni, berriz, aurretik beste pilotu batzuekin ibilia nintzen. Gezurra dirudi, baina azkenean kategoriako lehen postura iristea lortu dugu.

Egoera berezia, pilotuak sariak eskuratu duelako eta kopilotuak, aldiz, ez. Nola izan liteke hori?
Unai: Kotxe berean joan arren, sailkapenean bi kategoria bereizten dira. Batetik, pilotuen sailkapena dago eta, bestetik, kopilotuena. Kasu honetan, Borja izan da junior pilotu azkarrena. Kopilotuen artean, aldiz, beste batek ni baino sailkapen hobea lortu du, beraz, berak eramango du saria, nahiz eta juniorra ez zen pilotu batekin lehiatu.

Azken lehiara arte ez al duzue titulua ziurtatu?
Borja: Bai, hala izan da. Gernikako azken probara joan ginenean, gure antzeko puntuazioa zuten beste aurkari batzuk izan genituen. Zortea gure alde egon zen. Esan beharra dago lehen bi zatietan oso azkarrak izan ginela. Gure aurkariei autoa matxuratu zitzaien, eta proba amaitu ondoren txapeldun izatea lortu genuen.

Denboraldian zehar hainbat arazo mekaniko izan dituzue, ezta?
Unai: Gure lehen lasterketan palierra hautsi genuen. Bigarren lasterketa osorik amaitzea lortu genuen. Hirugarrenean berriro ere palierra apurtu zitzaigun, aurreko aldiko berbera. Mekanika aldetik hainbat hutsegite izan ditugun arren, gainontzeko lasterketak bukatuta sailkapenean igotzea lortu dugu.

> "Apurka apurka kotxeari neurria hartu diogu"
> Borja de la Linde, pilotua

> "Asistentzian gure lagun edo gurasoak izan ohi ditugu eta lanerako prest daude beti"
> Unai Arretxe, kopilotua

Zein izan da denboraldi osoan gehien gozatu duzuen proba?
Borja: Nire kasuan etxeko probak izan dira gehien disfrutatutakoak, Ibardineko Igoera eta Lesakako Rallysprinta. Azken batean, etxeko jendez inguratuta zaude, errepidea gehiago ezagutzen duzu eta azkarrago joaten zara.

Unai: Bai, niri berdina gertatu zait. Lesakako Rallysprinta etxetik gertu dugu, errepidea aski ezaguna da, beraz, azkarrago joateko aukera eman zigun. Bertan ezagun gehiago izan genituen lasterketa ikusten eta horrek ere lasterketa berezi egin zuen.

Nola kontrolatzen dituzue lasterketa hasi aurreko urduritasunak?
Borja: Urduritasuna saihesteko dena kontrolpean izaten saiatzen naiz eta horretarako gauzak ondo prestatu behar dira. Ateratzerakoan jada urduritasunak guztiz desagertzen dira eta disfrutatzeko unea da.

Unai: Egia esan, ez dut urduritasunak saihesteko metodo zehatzik. Esaterako, ni oso urduri jartzen naiz etxetik atera eta lasterketaren tokira iristeko bidean. Behin kaskoa jarrita eta asistentziatik aterata asko lasaitzen naiz.

Emaitza onak lortzeko pilotu eta kopilotuaren arteko harremana garrantzitsua da?
Borja: Noski, garrantzitsua da, pilotuak kopilotuaren beharra duelako eta alderantziz. Ni kopilotuak esaten didanaz fidatu behar naiz eta bera nire gidatzeko moduaz. Biek talde bat osatzen dugu eta ezinbestekoa da tartean harreman ona izatea.

Unai: Gainera, gure kasuan txikitatik ezagutzen gara, hortaz, konfiantza gehiago dugu. Lasterketaz gain, ordu asko ematen dituzte elkarrekin pilotu eta kopilotuek bai garajean zein entrenatzen.

Rallyek diru asko eskatzen dutenez, babesleen laguntza nabaria da?
Borja: Bai, asko eskertzen dugu. Gurekin dauzkagu Fotokop, Jabe Carrocerias, Sarasola eta Nexas Rap. Haientzat ere Covid-19aren ondorioz urte konplexua izan da, beraz, asko eskertzen diegu gure abenturara batu izana.

Garajean ordu asko sartu dituzue?
Unai: Lanetik atera eta askotan garajean elkartzen gara. Beti dago egiteko edo hobetzeko zerbait, bai proben aurretik bai eta ostean ere. Zerbait puskatuz gero hurrengo lasterketarako konponduta izan behar dugu.

Lasterketan asistentziaren babesa asko eskertzen da?
Unai: Bai, asko laguntzen digute. Bertan gure lagun edo gurasoak izan ohi ditugu eta lanerako prest daude beti, mekanikarekin lagundu eta janaria edo edaria eskaintzeko, gure lan karga arinduz.

Emaitza onak lotzeko kotxe on bat izatearekin nahikoa da?
Borja: Alde batetik, kotxe on bat izatea ona da, baina badira garrantzitsuak diren beste hainbat gauza. Adibidez, kotxea konpontzeko edo gidatzeko esku onak izan behar dira.

Datorren urtera begira, kotxe berberarekin errepikatzeko asmorik duzue?
Borja: Bai, kotxea gurekin gelditu da, beraz, datorren urtean behintzat horrekin lehiatuko gara. Saiatuko gara beste abiadura-kaxa bat sartzen eta atzeko zubia hobetzeko asmoa dugu. Kategoria irabazteagatik denboraldi amaieran saririk ematen ote diguten ikusi beharko dugu eta laster horren berri izatea espero dugu.

Gabonetako kanpaina berotzen hasteko balioko du Irun Aurrera Bonuen laugarren edizioak

“Udalak krisialdiak gogor jotako sektore bati laguntzeko duen lan ildoetako bat da”

“Irun Aurrera bonuen edizio hau Gabonetako kanpainarako berotzeko baliatu nahi dugu”

Juncal Eizaguirre, Hiri Bultzada arloko ordezkaria

Urtea amaitu aurretik hiriak Irun Aurrera Bonuen laugarren edizioaz gozatzeko aukera izango du. Juncal Eizaguirre Hiri Bultzada arloko ordezkariak egitasmoaren berri eman du, Bidashop eta Mugan merkatari elkarteetako eta Denok Bat ostalari elkarteko ordezkarien eta merkatari partikularren konpainian. Irungo Udalak merkatari txiki eta ostalariei eskainitako ekintza da, Ekonomia eta Gizartea Suspertzeko Planaren esparruan txertatuta dagoena.

Juncal Eizaguirrek nabarmendu duenez, ekimen hau “Udalak krisialdiak gogor jotako sektore bati laguntzeko duen lan ildoetako bat da”. Egoera egonkortzea lortu bada ere, Eizaguirrek gogoratu duenez hiriko dendak eta ostalaritzako establezimenduak ezin dira alde batera gelditu, hiriko familia asko haietatik bizi direla ulertuta. Horregatik, Irun Aurrera Bonuen aurrekoetan izandako erantzun paregabea ikusita, laugarren edizioan udalak bonu gehiago kaleratuko ditu, erosketak Irunen egin daitezela bultzatzeko.

Kanpainak aurreko edizioen antzera funtzionatuko du. Kanpainaren laugarren edizioan parte hartuko dute merkatari eta ostaleriek urriaren 20tik 29ra izan zuten Irun On webgunean egitasmoan izena emateko epea. Aurrekoetan bezala, establezimendu bakoitzak bereizgarri bat izango du kanpainan parte hartzen duela erakusteko. Egitasmoan hiriko saltoki txikiek eta ostalaritza establezimenduek parte hartuko dute elikagaiak eta edariak saltzen dituzten 400 m2-tik gorako lokalak, gasolindegiak, estankoak eta estatuan edo nazioartean presentzia handia duten enpresa handien filialak kenduta.

Erabilera arauak

Azaroaren 4tik abenduaren 5era martxan egongo da bonuen kanpaina. Zehazki, Irunen erroldatutako 16 urteko edo hortik gorako pertsonek erabili ahalko dituzte. Guztira, Irundar bakoitzak hamar bonu erabiltzeko eskubidea izango du, establezimendu bakoitzean gehienez horietako bi erabili ahalko dituelarik. Saltokietan 30 euroko erosketetan bezeroak 10 euroko bonuak erabili ahalko ditu, erosleak soilik 20 euro ordainduko dituelarik. Ostalaritza establezimenduetan aldiz, bonuak erabiltzeko gutxieneko erosketa 20 eurokoa izango da eta kasu horretan kontsumitzaileak 10 euro ordainduko ditu bakarrik.

Era berean, Hiri Bultzadako ordezkariak gogoratu duenez, erosketa tikek bakoitza pertsona bakarraren bonuekin lotu ahalko da. Gainera, Alkoholdun produktuak bakarrik eskuratzeko egiten diren erosketak ekimenetik kanpo geldituko dira.

Sektoreari laguntzeko ekimen honen alde egin zuten lehenengo hirietako bat izan zen Irun. Lehenengo edizioa 2020ko udan kaleratu zen, eta, ordutik, lau iragarri dira. Guztira, 650.000 euro jarri dira kanpainetarako, eta gero eta establezimendu eta kontsumitzaile gehiagok parte hartu dute: azken kanpainan, orain arte, ia 8.000 lagunek eta 213 establezimenduk guztira.

Egitasmo arrakastatsua

Bonu kanpainaren laugarren edizioa da eta jada aski ezaguna da hirian. Arrakasta horren erakusle da denda eta ostalaritza establezimenduak egitasmora batzeko epea ireki eta lehen orduetan jada 130 inskripzio egin zirela. Manolo tabernako Jose Mari Gonzálezek, Denok Bat elkarteko ordezkariak, Irun Aurrera Bonuen laugarren edizioa martxan jartzeagatik eskerrak eman dizkio udalari. “Hiriko merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan kontsumitzea sustatzen du eta hori orain funtsezkoa da”, azaldu du ostalariak.

Papperino izozki-dendako jabea eta Bidashop elkarteko kide da Yon Gallardo eta bere iritziz, “inskripzioen erritmoak erakusten du funtzionatzen ari den ekimena dela”. Bere esperientziaz galdetuta, Yon Gallardok onartu du jendea jada erosketa bonoak erabiltzera ohitu dela eta saltokietan erosketak egiterakoan bezeroek bonuak eskatzen dituztela. Kolon Menaje denda egitasmoaren lehen edizioan batu zen kanpainara eta Encarni Martinez dendariak adierazi duenez, “asko nabaritu dugu bonu kanpaina bakoitzaren hasiera, jendeak gehiago erosten baitu”.

Elkarte bilerak

Hiri Bultzadako Arloak jakinarazi duenez, “Irun Aurrera bonuen edizio hau Gabonetako kanpainarako berotzeko baliatu nahi dugu”, aurrez aurre baitugu. Dagoeneko aurtengo Gabonak osatuko dituzten jarduera eta ekimen nagusiak aurkeztu ditu udalak, hala nola Ficobako izotzezko pista, txirristak, argiztapen osoagoa eta kultur agenda, eta laster azken berritasunak iragarriko direla jakinarazi da. “Asteak daramagu merkatari eta ostalari elkarteekin eta auzo elkarteekin biltzen, Gabonak ahaztezinak izateko xehetasunak elkarrekin orrazten”, nabarmendu du Hiri Bultzadako ordezkariak. Horrela, Juncal Eizaguirre merkataritza eta ostalaritza sektorearekin bildu da, baita auzo elkarte batzuekin ere, aurtengo kanpainaren eduki edo ildo nagusien berri emateko eta, aldi berean, haien ekarpenak jasotzeko.

ESTUDIO FOTOGRAFÍA GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2°
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

IRUNGO LA SALLE LH4

Denbora-pasak

7 hitz: Pertsonaia mitologikoak

Q	G	A	L	T	Z	A	G	O	R	R	I	S	K
V	B	L	L	G	E	Z	U	W	R	K	M	D	N
X	F	T	L	L	C	W	C	O	L	F	A	I	L
O	A	R	H	Q	G	S	T	R	P	B	I	T	J
S	O	R	G	I	N	A	K	H	V	B	R	L	Y
B	A	S	A	J	A	U	N	B	O	T	U	V	X
D	B	Q	N	H	D	I	S	U	D	V	D	C	U
Z	F	G	D	I	W	E	X	Q	K	E	D	A	K
U	Z	K	N	M	C	T	M	K	D	R	I	I	R
Z	F	W	V	Y	N	Y	U	Y	T	M	E	V	H
G	X	J	Y	B	N	Y	O	J	E	N	T	I	L
R	B	L	W	R	B	V	K	E	N	E	H	T	T
L	A	M	I	Q	T	S	E	B	W	Q	V	H	R
D	B	T	A	R	T	A	L	O	B	P	G	S	S

Tartalo, mairu, galtzagorri, sorginak, basajaun, lami, jentil.

	5		2	6	7			
		3						
	9	7				8		4
						4		
5		2	8					3
9					1		8	5
	1		5			3	7	
	4							2
	7	5	9	2	8	6		

Azaroa ate joka

Doinua: "Azaroa ate joka"

Egilea: Egoitz Zelaia Perez

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

1)
Azaroa ate joka
ari da axolagabe
iparraldeko haizea
sartzen hasi da herabe.
Azken aldian lanera
noala, presarik gabe,
Dunbarriak, goizean goiz,
izan ditut parez pare…
Egunsentiak sekula
baino ederrago daude.

2)
Marea gora. Etxetik
usain daiteke kresala
lainoak metatu dira
marrazten argi-itzala.
Nik ikusteko moduan
utzi du gutun-azala.
Arratsaldez ikusi dut
poteatzen genbiltzala
pena edaten ardoa
izanen balitz bezala.

3)
Begiratzen du herriko
zure argazkietara
behar bada zu bilatzen,
zu aurkitzen, behar bada…
Aietetik hona nola
aldatu den begirada.
Tarteka entzuten diot:
"arras erraz ohitu gara
bake asmorik gabeko
bake garai honetara".

4)
Begiak nahigabetuak
eta bozean dardara
burua ezin altxatu
darama azken bolada.
Noizbehinka perfilatzen du
irri baten ingerada.
Lau hormen artean preso
duenarentzat alaba,
nonbait, bizitza laburra
eta pena luzea da.

5)
Hurbilketei begiratuz
bada aski datu dantza
zurrumurruei ematen
ari zaie egiantza
mugimenduak daudela
eta badu konfiantza
burumakur dabil baina
ez du guztiz galdu, antza,
noizbait etxera sartuko
zarenaren esperantza.

6)
Bederen nahiko zintugun
hemendik ahalik hurbilen.
Urte eta erdi pasa
ez zaituela ediren
hurrengoa noiz ote den
ez dakit oso argi den
amarekin joateko
ideiarekin nenbilen
ea bisitak lehen bai lehen
lehenera itzultzen diren.

TXINGUDI IKASTOLA DBH4

2030 proiektuarekin lotuta, aurtengo ikasturtean beste proiektu bat jarri dugu martxan 4.mailako Plastika isleekin.

BASOA" gaian oinarritu da Agenda 2030 proiektua eta gure saioetan baso bat sortzea erabaki dugu. Ikasle zuhaitza diseinatu du eta bere zuhaitzaren gainean bere bizilekua izango den etxea ere diseinatu du. Mod ak bizidun askoren bizileku direla irudikatu nahi izan dugu.

ndua eta gure munduko basoen garrantzia nolakoa den landu dugu saio hauetan eta era berean, gaia eta a este behin, artearen mugak mugagabeak direla ikussiaz!
ikoitzaren lana, munduko zuhaitza bakoitza eta munduko baso bakoitza, BAKARRAK ETA ERREPIKAEZIN/ DITZAGUN!

a martxan dago momentu honetan eta hurrengo bi asteetan bukatuko dugu. Gure eskolako sarreran egong

DI BHIko Plastikako 4.mailako ikasleak.




Iune Bermejo, abeslaria:

"Abestuz bizitzea lortzen badut, sekulakoa izango da"

Iune Bermejo gazte irundarra da eta musikaren munduan bere lehen urratsak egin ditu dagoeneko. Urriaren 23 eta 24an, berriz, Zabaltza plazan egindako Gazteartean Fest jaialdiak eszenatoki batera igotzeko eta lehen aldiz publiko aurrean kantatzeko aukera eman dio. Iune Bermejo gazteak musikaren munduarekin duen lotura estua azaldu du.

Noiz hasi zinen musikaren munduan?
Txikitatik asko gustatu izan zait musika entzutea. Urteak pasa ahala gero eta gehiago gustatzen zitzaidala konturatu nintzen eta abesten hasi nintzen. Horrela, 13 urterekin abesten ikastea erabaki nuen.

Musikarekin loturiko prestakuntza jaso duzu?
Bai, hainbat urtez kantuko klaseak jaso nituen eta orain Irungo IGA abesbatzako kidea naiz. Horretaz gain, udara batean Rock Camp izeneko kanpamentu batean parte hartzeko aukera izan nuen eta musikarekin lotutako gauza asko ikasi nituen bertan.

Urriaren 23koa publiko aurrean eskaini duzun lehen kontzertua izan da?
Bai, nire lehenengo esperientzia izan da eszenatoki baten gainean. Egia esan, uste baino hobeto atera zen dena, nahiz eta kontzertua hasi aurretik oso urduri nengoen. Lehen kontzertu hau eman aurretik etxekoek ere ez ninduten abesten entzun, beraz, oso berezia izan zen haientzat ere. Egia esan, eszenatokira igo nintzenean oso eroso sentitu nintzen eta oso ondo pasatu nuen.

Nola lortu zenuen Gazteartean Fest jaialdian parte hartzeko aukera?
Abesteaz gainera, Ainhoa dantza akademiako ikaslea naiz eta gure irakaslea haurdun egon zenean ordezko bat etorri zen. Duela urte batzuk irakasle ordezko horrek Instagram bidez hitz egin zidan abesten nuela ikusi ostean eta, horrelako ekitaldien antolakuntzan lan egiten duenez, kontzertuan parte hartzeko aukera eskaini zidan.

Irungo udaletik artista gazteen lana laguntzea ondo dagoela uste duzu?
Bai, oso ondo. Gainera, orain pandemiarekin musikaren mundua ia guztiz eten da denbora batez, ezin izan baitira kontzertuak egin. Sektoreak bultzada bat behar zuela uste nuen eta artistak laguntzea oso aukera polita iruditzen zait.

Zer eskaini zenuen zure lehen kontzertuan?
Lau abesti abestu nituen. Lehenengoa ingelesez izan zen, Coldplay taldearen "The Scientist". Gainontzekoak erdaraz egin nituen, erosoago sentitzeko. Horrela, Sinsinati taldearen "Mi lugar", Teresa Castrillok Instagramera igotako 2020 izeneko abestia eta Marta Sotoren "Quiero verte" kantatu nituen.

Zein izan zen publikoaren erreakzioa?
Egia esan, oso ona. Nire lehen kontzertua zenez publikoarengan pentsatzeak oso urduri jartzen ninduen, baina oso ondo atera zen dena. Nahastu arren asko animatu ninduten eta oso gustura sentitu nintzen.

Sare sozialak zure lana zabaltzeko laguntza handikoak izango dira, ezta?
Bai, orain dela gutxira arte nire sare sozialetan ez nituen ni abesten agertzen naizen bideoak partekatzen. Horrelako edukiak partekatzeak lotsa handia ematen zidan eta ez nintzen seguru sentitzen. Nire lagunek abestiak partekatzera animatu zidaten, gustuko ez duenak nire edukiak ez ikusteko aukera duela gogoratuz. Horrela, pixkanaka bideoak igotzen hasi nintzen.

Beste artisten kantuez gainera, zure abesti propioak sortzen dituzu?
Bai, lehengo urtean abesti bat sortu nuen nire aitaren urtebetetzerako. Berarentzako opari bat izan zen. Hala ere, nire kabuz abesti propioak sortzen saiatzen naiz, beste abeslarietan inspiratuz.

Abesteaz gainera, musika instrumentuak jotzen ikastea gustatuko litzaizuke?
Bai, nahiz eta inoiz musika instrumenturik jotzen ikasteko klaserik jaso ez dudan. Teklatu eta gitarra bat dauzkat, nire lagunek oparitutakoak eta asko eskertzen dizkiet opari horiek egin izana. Beraz, nire kabuz ikastea gustatzen zait, aukera dudanean lagunen bati laguntza eskatu arren. Bestela, etxean Youtubeko bideoak ikusten ditut nola jotzen diren ikasteko.

Zein da gehien gustatzen zaizun musika estiloa?
Pop musika da gehien gustatzen zaidana. Ingelesez, erdaraz eta euskaraz pop musika kontsumitzen dut.

Zein abeslarirekin abestea gustatuko litzaizuke kolaborazio bat egiteko?
Asko gustatzen zaizkit Vanesa Martin, Manuel Carrasco, Antonio Orozco eta Instagram bidez ezagututako Teresa Castrillo eta Maria Parrado, gutxi gorabehera nire adina dutelako. Nazioarte mailan, berriz, Coldplay eta Aitana aipatuko nituzke.

Zure burua etorkizunean abeslari profesional gisa ikusten duzu?
Gustatuko litzaidake, baina oso mundu zaila da. Hala ere, nire esku dagoen guztia egiten ahaleginduko naiz eta, behintzat, musika nire zaletasuna izaten jarraitzea gustatuko litzaidake. Abestuz bizitzea lortzen badut, sekulakoa izango da.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Zeuk esan

Euskadiko haurrei eta nerabeei zuzendutako laguntza-gunea da. Zeukesan-ek laguntza emateko telefonoa eta webgunea dauzka. Alde batetik, ZeukEsan-en telefonoa, 116 111, doakoa da (ez duzu ezer ordaindu behar) eta guztiz anonimoa.

Bestetik, Zeukesan webgunea duzu eskura, eta blogak, gizarte sareak, bideo kanala eta kontsulta postontzi anonimoa ditu, telefonoz deitu ordez idatzi eta zer gertatzen zaizun kontatu nahi baldin badiguzu ere.

Horregatik, laguntza behar baduzu: kontaktatu!

Gazteen Topaketa Nazionala

1.000.000 YouthPass ziurtagiri, eta, tokiko esparruan, animatuko zara?

Gazteek, boluntarioek, teknikariek eta politikariek boluntario entitateen baitan eta boluntarioekin dihardutenetan garatzen diren eskumenak aitortzeari buruz hausnartzeko nazio mailako topaketa.

Hezkuntza ez-formalaren esparruko jarduera multzo batean oinarritzen da ekitaldia, eta tailer teoriko praktikoek osatzen dute, non gazteek zein adituek eta gazteria politiken arduradunek parte hartuko duten. Eztabaida hitzaldiak, sintesi mahaiak eta tailerrak, truke laborategiak, deskubrimendu guneak...

Adina: 18 - 30 urte.

Data: Azaroak 10 - 16.

Tokia: Arrokaundieta aterpetxea (Pasai Donibane, Gipuzkoa).

Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da! Esteka Irungo iGazteren webgunean duzu.

"The future game". Bihar zer?

The Future Game ekimenak 'The Future Game. Bihar zer?' inkesta abiatu berri du Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen artean. Egitasmoaren helburua da, 2050. urtea eszenatoki gisa hartuta, etorkizuna nola irudikatzen duten ezagutzea eta erronka berriei modu kolektiboan erantzutea.

DOT kooperatibak (berrikuntza sozialera bideratutako berrikuntza-agentzia), Osoigo Next-ek (gobernantza kolaboratiborako partaidetza-prozesuak sustatzen dituen plataforma) eta Braulio Gómez Deustuko Unibertsitateko irakasleak sustatu dute ekimena, Badalab, EITB eta BBK Kunaren babesarekin.

Inkesta irekia da eta edozeinek parte har dezake, https://thefuturegame.org/ plataforamaren bitartez. Galdetegia joko moduan planteatuta dago, modu dinamiko eta arinean bete ahal izateko. Gazteen errealitatean eta etorkizunean eragina izango duten funtsezko gaiak landu dira.

berdindu!

Berdindu

Berdindu! Sexu eta genero aniztasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa eta arreta ematen duen zerbitzu publikoa da.

Harremanetarako: berdindu.gipuzkoa@gmail.com - 943 216 551.

Arreta ordutegia: asteartetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara goizez eta 16:00etatik 19:00etara arratsaldez.

Atzerrian Nazioarteko Batxilergoa ikasteko bekak

Mundu Batuko Ikastetxeen Espainiako Batzordea Fundazioak deialdia egin du Beka (osoa edo partziala) duten 10 plaza eta Nazioarteko Batxilergoko bi ikasturteak erakunde horretako ikastetxeetan ikasteko plazak betetzeko.

Baldintzak:

- Espainiako nazionalitatea izatea.

- 2005ean edo 2006an jaio izana.

- DBHko 4. maillan edo Batxilergoko 1. mailan egotea.

- Ikasketa-espediente ona eta ingelesaren oinarrizko ezagutzak izatea.

Epea: 2021eko azaroaren 8a.

UWC

XXVI. Enpleguaren Astea

Irungo eta Hondarribiko udalek, Bidasoa bizirik-en bidez, Enpleguaren XXVI. Astea antolatu dute datorren azaroaren 10erako Ficoban. Oraingoan, 30 enpresa inguruk parte hartuko dute eta 90 bat lan eskaintza egingo dira 170 lanpostu betetzeko.

Azoka egunean, parte hartzen duten enpresa guztiek aldez aurreko hitzorduaren bidez egingo dituzte hautapen prozesuak. Horretarako, 45 minutuko sei ordu-tarte planifikatu dira, 9:00etatik 13:30era.

Ficobarako sarrera 60 laguneko taldetan egingo da ordu tarte bakoitzeko, eta lehentasuna izango dute azoka eguna baino lehen lan eskaintzetan izena eman dutenek. Eskaerak jaso ondoren, ordu tarte bakoitzeko sarbideak antolatuko dira eta interesatuei telefonoz deituko zaie. Lan-eskaintzak Bidasoa bizirik-eko webguneko 'Agenda/Lan-eskaintzak' atalean egongo dira argitaratuta azaroaren 4ra arte.



Azaroak

5

Dokuirun

Zer: Dokuirun saioaren barnean "Ellas Son Eléctricas" filma eskainiko da.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Doan, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Iraupena: 144 minutu.

6

Antzerkia

Zer: "Cinco minutos" antzerki emanaldia Andoni Agirregomezkortaren eta Itziar Urretabizkaiaren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 15 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Iraupena: 70 minutu.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

7

VIII. Azkue Memoriala

Zer: Solasaldia eta, ostean, W Duo-a ariko da: Vincent Thévenaz (organoa) eta Vincent Barras (saxofoia).

Non: Junkal parrokian.

Ordutegia: 18:15etan solasaldia eta 19:00etan kontzertua.

Sarrera: Doan.

10

Enpleguaren Astea

Zer: Irungo eta Hondarribiko udalek, Bidasoa bizirik-en bidez, Enpleguaren XXVI. Astea antolatu dute.

Non: Ficoban.

Ordutegia: 9:00etatik 13:30era.

Izena emateko: Lan-eskaintzak Bidasoa bizirik-eko webguneko 'Agenda/Lan-eskaintzak' atalean egongo dira argitaratuta azaroaren 4ra arte.

Oharra: Parte hartzen duten enpresa guztiek aldez aurreko hitzorduaren bidez egingo dituzte hautapen prozesuak.

13

Irun Zuzenean jaialdia

Zer: Irun Zuzenean jaialdian Olimpia, Sara Zozaya eta La Bien Querida artistek parte hartuko dute.

Non: Ficobako 3. pabiloian.

Ordua: 20:00etatik aurrera.

Sarrera: Doakoa, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Gonbidapenak baimendutako edukieraren arabera banatuko dira, orduan indarrean dauden neurrien arabera.

14ra arte

Erakusketa

Zer: Ondarea izeneko erakusketa.

Non: Amaia Kultur Zentroko erakusketa aretoan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara, igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara.

Sarrera: Doan.

Denbora-pasen emaitzak

O	G	A	L	T	Z	A	G	O	R	R	I	S	K
V	B	L	L	G	E	Z	U	W	R	K	M	D	N
X	F	T	L	L	C	W	C	O	L	F	A	I	L
O	A	R	H	Q	G	S	T	R	P	B	I	T	J
S	O	R	G	I	N	A	K	H	V	B	R	L	Y
B	A	S	A	J	A	U	N	B	O	T	U	V	X
D	B	Q	N	H	D	I	S	U	D	V	D	C	U
Z	F	G	D	I	W	E	X	Q	K	E	D	A	K
U	Z	K	N	M	C	T	M	K	D	R	I	I	R
Z	F	W	V	Y	N	Y	U	Y	T	M	E	V	H
G	X	J	Y	B	N	Y	O	J	E	N	T	I	L
R	B	L	W	R	B	V	K	E	N	E	H	T	T
L	A	M	I	O	T	S	E	B	W	Q	V	H	R
D	B	T	A	R	T	A	L	O	B	P	G	S	S

4	5	8	2	6	7	1	3	9
1	2	3	4	8	9	5	6	7
6	9	7	1	3	5	8	2	4
7	8	1	3	5	2	4	9	6
5	6	2	8	9	4	7	1	3
9	3	4	6	7	1	2	8	5
2	1	9	5	4	6	3	7	8
8	4	6	7	1	3	9	5	2
3	7	5	9	2	8	6	4	1

Espazio atsegin eta paregabe batean bizi nahi duzu?

Erreforma integralak

Zure etxebizitzan edo enpresan aldaketak egiteko asmoa baduzu. Hamaikan lagun zaitzakegu.

Km0

Konfiantzazko tokiko hornitzaileekin lan egiten dugu. Kalitatea eta zerbitzua emaitza perfektua lortzeko

Bereizi zaitez

Ez al zaitu aspertzen etxe guztietan IKEAko altzari berberak ikusteak? Kalitatezko altzariak eta dekorazioa eskaintzen ditugu.

Profesionalak

Gremio bakoitzeko profesionalik onenekin lan egiten dugu. Erreformekin sufritzea amaitu da

HAMAIKA

San Marcos Plaza 1,
Hondarribia

(+34) 943 64 64 12
hamaikalan@gmail.com